

Dana dago prest, Artean egingo dan Arratiako I. Raid-erako

11. orrialdea

Ekitaldia aprilaren 20an

BEGITUK bere 10. urteurrena ospatuko dau Igorreko Kultur Etxean aprilaren 20an egingo dan ekitaldian. Han, Juanma Labandibar eta Eneritz eta Marina abeslariak egongo dira; baita Maider Yabar trapezista, Institutuko antzerki taldeko ikasleak, eta beste asko. Aldizkariaren webgune barriztatua be aurkeztuko da ekitaldian. **13. orrialdea**

begitu¹⁰
urte
arratia ubide zehar

Europako irakasle bi Arratiako euskerea ikertzen

12. orrialdea

TOKIKOM
begitu¹⁰
urte
arratia ubide zehar

162

2012ko aprilaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org

Abel Ariznabarretak dino hezkuntzea eskumenakaz defendidu behar dala

Abel Ariznabarreta dimoztarra Ikastolen Elkarteko pedagogia alorreko arduraduna da eta euskal curriculumaren egileetako bat. Ariznabarretaren arabera, euskal curriculumak ikastolen helburu estrategiko nagusia da XXI. mendean.

Curriculumak "hizkuntzaz harago, ikasleak ikastolan, ikastegian, jaso beharreko ezagutza, bertakoa eta unibersala eta landu beharreko konpetentzia eremu zabala da".

Pedagogia alorreko arduradunak gurean murrizketak aspaldian hasi zirala hezkuntzan dino. "Eusko Jaurritzak aspaldi itxi eutsan hezkuntzan be orain arteko diruak ipinteari" eta Raxoik agindutako murrizketen aurrean "daukaguzan eskumenakaz defendidu eta au-

rera begira euskal hezkuntzearen esparru propioa eta burujabea" aldarrikatu behar dogu. Bere ustez, Euskal Hezkuntza Sistemaren Legea beharko geunke horri guztiari behar dan moduan aurre egin ahal izateko.

Dimoztarra Euskerazko Komunikazio Taldeko administrazio kontseiluko kide be bada. Bere ustez, hedabideetan "paradigma aldaketea dago. Euskal medioetan noraeza handia da eta guztiz defensibak dagoz". **8. eta 9. orrialdeak**



Abel Ariznabarreta argazkiaren erdian.

IGORRE

Negarra enpresako beharginak greban dagoz



Greba mugabakoa hasi dabe Negarrako beharginak enpresek 59 langile kaleratzeko dosierra aurkeztu daualako. Igorreko fabrika 177 beharginek egiten dabe lan, tximinia eta termo elektrikoak fabrikatzen. Grebaren helburua sindikatuen ordezkarien arabera, "enplegua erregulatuko dosierra bertan behera itxiarazotea eta negoziatzeko prozesu bat zabaltzea" da. **5. orrialdea**

AREATZA

Areatzan hiru auto maileguan

Udalak hiru auto maileguan ipiniko ditu autoa eukiteak dakarzan gastuak izan barik autoa erabili ahal izateko. Erabiltzaileak 20 euro urtean eta 1,5 euro orduko eta 0,22 euro km.ko ordaindu behar dau. Mantenimendu gasturik ez dagoanez, urtean 1.500 km baino gixiago egiten dabezanentzat erostea baino gehiago komenidu jakiela dinoe udalekoak. **5. orrialdea**

IGORRE

Marinaledako alkatea Igorren

Igorreko Udalaren ekimenez Marinaledako (Sevilla) alkateak "Construyendo la utopia desde el nacionalismo" izeneko berbaldia emongo dau aprilaren 23an Kultur Etxean. Marinaleda herria ezaguna da herritarren etxebizitza bermatzeko eta enplegua sortzeako ekimenakaitik, eta asanblada zabalakaz eta auzolanagaz egiten dauan kudeaketa parte hartzailegaitik. **7. orrialdea**

 **arratiako merkatarien elkartea**
www.arratia-merkatariaK.com

ZORIONAK BEGITU!!!

Segi aurrera beste 10,20... urte, ez gelditu!

IGORREN EROSI

KANTU HERRIKOIAK

OLES TA OLES

Oles ta oles etxekotxuek
jotzen dituez atea,
jotzen dituez atea eta
kontsolatzeko jentek.

Zezeilaren laugarrenian
usu bezala munduan,
Santiageda notadutze
bakotzak bere moduan.

Urioleak eroan jeustezak
neure lagunenek erdiek,
beste enpadu guztiek
faltsoak eta hordiek.
Pausuen-pausuen galtzean jeustiezak
neure zezin te urdiek.

Hasiko banaz, hasi nedila
uzaba jaune notatzen.

Hamaseikuak hegoak zabalak
laroegi peseta ditu,
guri pare bat emonagaitik
setenta y ocho gelditu.

Horra hor goiko landetan
eper usuak kantetan.

San Pedro dago koruen
ipini euren moduen.

Probintzie ta Araba
Fuenterrabien gerra da,
etxe honetako uzaba jaune
bakeak eiten hara da.
Bakeak einde etori da ta
etxean zaratea da.

Uzaba jaune parkatu
ez bazara ongi notadu.
Orain hasite gura genduke
dama gaztea be notadu.

Agur etxeko naf[gu]si ta txiki
zahar eta gazte batera,
alkate jaunene baimenez gatzoz
zeuok atsegindutza.
Lehenauko zaharren antzera
baigatzoz zeuon etxera.

Urtean behingo konfesinua
gehiena gogo txarrian,
ordu batetik bestera dator
munduko errematia.
Pekatarientzat itxita dago
zeruetako atia.

Barrabas dabil geu toriatzen
galtza gorriek jantzia,
inperurako izan ez deidan
anima honen sententzia.
Konfesio banan alde e[gu]in dezagun
kunplitu penitentzia.

Oles ta oles

Iturria: Bizente Egiluz Amuriza (Zeanuri 1923).
1988an, Zeanurin, Udako Euskal Unibertsitateko musika taldeak jasoa.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara

Aprilaren 16tik 22ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Aprilaren 23tik 29ra
Traver. Bedia. J.A. Agirrearen enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Aprilaren 30etik maiatzaren 6ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Goiria. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara
Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 631 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean
Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30
minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean
Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago
zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Maria Gonzalez Gorosarri eta Irati Urien.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Irujo (Dima), Alai Ozerinjauri eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.500 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.500 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bilbao Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk

ZEURE BERBEA

Athleeeeeeeeeetic

Loiu, martiako eguazten hotz honetako goizeko seiretan ez ohiko mobimentua igarri egiten da aireportuko ateetan. Batetik bestera dabilzan ehundaka personoren aurpegietan ilusinoa eta logurea nahastu egiten dira. Erroptetan kolore bi nagusi, zuria eta gorria. Bide desbardinetatik leku bardiñera gehienok: Manchester. Eta guztien artean Villaroko bederatziz lagun. Agurren eta besarkadaren ostean azken begiradea papelai... En martxa!

Eguzkitsu baina hotz hartuten gaitu Ingalaterrak. Bertako taxi baltz tipikoetan sartuta hotelera goaz. Biajearen Ametsen Antzokia ikusten dogu lehenengoz. Momentu bateko ixiltasunean gure ametsak bertara joan dira. Hotelean lekua hartu ostean, tranbiaz goaz uriaren erdikaldera. Hau ez da uste genduan uri industrial tipikoa! Merkatala guneetako estetika modernoa nagusitu egiten jako bertako estilo tipikoari uria- ren erdian. Uri lasaia, euria eta hotza. Pub tipiko batera sartu gara. Uri osotik lez, hemen be zuri-gorria nagusi, baina ikusten doguzan lehenengoak, Villa-

rokoak! Herri osoa etorri ete da ala? Afaldu ostean, batzuk indarrak berreskuratzen hotelera eta beste batzuk bertako gau giroa ezetuten, ai gazteria zer dan!

Eguena, partidu eguna. Pubetan pintak gora pintak behera, Old Trafford-era joateko ordua heldu da. Antzoki hau, ametsez betetzen! Nahiko kontrol pasau ostean sartu gara. Ikaragarria zelaia! Futbola usaindu leiteke hemen! Goian kantuz eta behean futbolearen, eszenatoki mitiko hau garaitu dogu. Ilusinoa emozino bihurtu da, negar-anpuluak gazte eta nagusien arpegietan ikusten dira. Euforia nagusitu da. Besarkadak eta mosuak, laguna eta albokoari. Ezin sinistu. Historia egin dogu, jakin badakigu, baina ondino ez gara konsziente. *Carpe Diem!* Gero gerokoak!

Barikuan, trena hartuta Liverpool-era goaz. Hau bai, espero gendua. Uri industrial ingelesa. Adreilu gorriko etxe ez oso altuak, trafikoa, katedrala, jentea kaleetan, uri bizia, indartsua benetan. Lennon eta Beatles-ai The Cavem-en bisita egin ostean, Mathew Street-eko pubak ezagutzera goaz. Eta ondo ezagutu be! Batzuetan Sanbartolomeetan gagozala emoten dau!

Zapatua buelta eguna, bai-

na holako talde umoretsuagaz egun osoko biajea parranda eguna bilakatuko da. Pentsetako aukerea be eukiko dogu egunean zehar. Eta gogoratzeko. Gogoratzeko aspaldiko partez ez nenbilela jente talde zoragarri honegaz. Gogoratzeko zergaitik ondino sarritan Villaroztarrak gara-la esaten dogun. Eta zergaitik maite dogun hainbeste herri txiki zoragarri hau. Eta zergaitia argia da, bere jentegaitik, Villaroztarrakaitik. Belaunaldi desbardinak, betiko lagunak eta ezagunak baino ez ziran lagun barriak giro eta umore ezin hobea goan batuta, gure aurrekoak erakutsitako moduan. Izan eta sentitzearen harrotasunez!

Eta holan, barre eta pentsamentuen artean, etxera ailegau gara. Bakotzak bere bidea hartuko dau hurrengo eguenerako zita hartuz, eta danok dakigu hurrengoko egunean ametsa borobilduko dala. Eta barriro be, lagun onen ondoan emozinoak azaleratu dira eta gertatu dan guzti hau, gu guztion buruetan gordeko dala betirako. Eta ezin izango dogula inoz be ahaztu!

Villaron ikusiko zaituet! Aupa Athletic!

GILLERMO CARREÑO

ERETXIA

FRACKINGAREN KONTRAKO ASANBLADEA

Frackinga eta gasa Arratian

2011ko urrietan, Patxi Lopez Lehendakariak Araban gas erreserba handiak dagozala iragarri eban. Antza, *fracking* izeneko teknikearen bitartez ustiatu beharreko ezohiko gasaz ari zan. Horren harira ezagutu izan genduan Euskal Herrian gas mota hori ustiatzeko 15 ikerketa baimen dagozala, guztira 800.000 hektarea baino gehiago. Arratiari jagokonez, Saia, Lore eta Mirua izeneko baimenak bete-betea hartzean gaitue.

Ezohiko gasa, orain arteko teknologiaz eskuragarri ez egoan gasari esaten jako. Gurean, gas hori sakonera handietan eta arroka iragazkaitzetara itsatsita egoten da, normalean arbelean. Horrek, gasari oso jariakortasun gitxi eskeintzen deuto eta horregaitik haustura hidraulikoa (*fracking* ingelesez) moduko teknika konplejuak behar dira erreserbak ustiatzeko. Laburbilduz, prozesua honakoa da: lehenik, sakonera handiko (2-5 kmko) putzu bertikala zulatzen dabe gasa daukan arrokarara heldu arte. Bertan, lehergailuak eta presino oso handietan sartzean dan fluido baten laguntzeagaz arroka hautsi egiten dabe, arrokan dagoan gasa askatuz. Fluido hori ura eta hareaz aparte, benzeno, xileno edo zianuroa bezalako sustantzia toxikoz osatuta dago. AEBetan egindako azterketetan 600 sustantzia desbardin topau izan dira. Amaitzeko, gasa eta haustura fluidoa azaleratu eta tratatu egiten da gasa aprobe-txau ahal izateko.

Arazorik larrienak uraren kontsumoaren eta kutsaduraren ondorioz gertatzen dira: 6 putzuz osotutako plataforma tipiko batek 231.000 tona ur behar ditu. Bestalde, erabilitako gehigarri kimikoen artean sustantzia kantzerigenoak dagoz eta baita begi, azal, digestino, amas eta nerbio sistemearentzako guztiz kaltegarriak diranak be. Horregaz guztiagaz haustura hidraulikoa egin ostean, erabilitako ur eta sustantzia kimiko guztien % 11 bakarrik berreskuratzen da. Gainontzekoa lurrazpian geratzen da betirako. Prozesuan bertan arazorik ez balez be (AEBetan ehundaka isuriketa gertatu dira) bomba kimiko horrek datozen hamarkada eta mendeetan gure akuifero, erreka eta iturrietan euki daiketan eragina guztiz kontrolaezina da. Horretaz aparte, lurrazpiko arroka be, metal astunak edo elementu erradioaktiboak izan daikiez gasagaz batera zuzenean azaleratu daitekezanak edo hausturearen eraginez akuiferoak kutsatu daikiezanak.

Kutsaduraz aparte, haustura hidraulikoaren eraginez lurrikarak egon dira Ingalaterran eta AEBetan. Putzuen eraikuntzak eta funtzionamentuak berak be arazo handiak eragiten ditu batez be nekazal eremuetan, milaka kamioien mobimentua behar da eta.

Beste alde batetik, *fracking* ez da ingurumenari eragiten deustan arazoa bakarrik. Ongizatearen gizartean behar beharrezkoak doguz gasa eta petroleoa. Horregaitik, egungo eredu ekonomiko eta politikoa kolokan ipini ezean, gas eta petroleo kontsumoa bere horretan mantenduko dira, eta "ohiko" energia iturriak munduan zehar agortu ahala beste aukerarik ez da egongo, gure lurretara jotea baino. Hori kontuan izan beharko dogu *fracking*ari ganoraz aurre egiteko.

Amaitzeko, Espainiar estadiak gas eta petroleoan urtero 60.000 milioe euro gastetan ditu eta gatxa egingo jako ezohiko gasak ekarriko leuen aukerari uko egitea. Horrerik, Euskal Herriak estadi osoko ikerketa baimenen ia erdiak dituala gehitzen badeutsagu berba bi jatorkuz burura: "Interés Nacional". Eta gurean ondo dakigu horrek zer esan gura dauan.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BERBETUK@topagunea.com da horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo beritu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Giltzea



"A" organikoa edo itsatsia deitzean geuntsan lehenago artikulua edo mugatzailea ez dan -a amaierari (ehule-a, ehun-a... *versus* berbeta, osaba...). Azken bi honeek batuaz era mugagabeen zein mugatuan bardin-bardin egiten dira. Bizkaieraz, osteraz, mugatua danean -a aldatu egiten da, -ea eginez: berbeta, osabea, giltzea. Mugagabeen bada, giltza bat da, esaterako: "Zenbat giltza dakaruz?"; eta giltzea mugatuan: "-Non dago giltzea? -Mahai ganean itxi dot!".

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea Iuzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrez beharrez, euskeraz eginez

Enbata Batzen gaitu

LUMATUTEN

IRATXE
ETXEBARRIABeste hamar
eta gehiago

Hamar urte bete dira lehenengo BEGTU aldizkaria esku artean hartu genduanetik. Zenbat denpora, zenbat aldaketa! Denpora honetan hamaika urtan bizi izan naz: Igorren, Galwayn, Gasteizen, Madrilan eta Bruselan. Egunkariak irakurtea beti mantentzen dodan ohitua da, batzuetan bertako bari eukiteko zana, beste batzuetan etxeko notizien gosea asetuteko eta askotan munduan pasetan dabilena ezagututeko. Halanda be, etxera, Arratiara, etorten nintzanean, hemengo hurreko barrien beharra neukan. Ez etxeko eta lagunen bari, horreek helduan dira; lehen kartaz eta orain e-postaz edo *whatsapp* bidez... Beste kontuak behar nebazan, egunerokoan zarata handirik atera barik pasau diranak, etxera etortzerakoan norbere inguruan arrotz ez sentiduteko. Esate baterako: berbalagun proiektua, Inbiu eguneko *Lip Duba*, merkatarien talde indartsuen gorabeherak, edota Arratia, Zeberio eta Ubideko heritarron

balentriak, hein handi baten BEGTURI esker ezagutu dodaz.

Hauxe da, hamar urte honeetan bizi izan dodan aldaketa handienetako bat. Eta BEGTU hamabostean behin Bruselan jasoteak ez dauka preziorik. Goizean bulegora heldu eta sobre zurriaren barruko notiziak, danak, ganetik asko, leidutea minutu batzuetan Arratiara etortea lez da. Eta zorionez hau, hamabost egunean behin pasetan da.


Hamar urte atzera egin daiguzan barriro. Askok zalantzan jari eban, BEGTU proiektua: kolore politiko bat eukala edota Arratia, Ubide eta Zeberioko albisteak beste egunkari batzuetan be irakurri ahal dirala neure belarriak entzuneko komentarioak dira. Eskerrak, komentario horreek ez zirala ilusinoz betetako proiektu bat amatatzeko gai izan. Igual holan izango da baina gauza bi: egiten dana ez daigun kritikau, holango proiektu bat martxan ipintea, pausua emotea bera, txalogaria dalako. Eta bigarena, herri aldizkariak pentsetan doguna baino funtzino indartsuagoa daukielako herri baten integrazinoan.

BEGTU zoriandutea ez jata besterik gelditzen. Niretzat, oso balagarria dalako, titulu personalean baina ausardiz esango neuke gero eta zatituago ibili garan Arratia, Ubide eta Zeberioko heritarrok batzeako be balio izan dauala. Gure aldizkariak emoten deuskuna, ez deusku CORREO, DEIA, GARA edo BERRIAK ekariko... ez daukie eta gure herrietako notiziei behar daben lekua emoteko espaziorik. Leku hori BEGTUK dauka. Ez naz hilaren 20an Igorren urteurreneko ospakizunetan egongo, baina nagoan lekuan egonda be, aurrera BEGTU beste hamar eta gehiago izan daitezkan.

ZERTZEAN



PELLO ARTABE



BEGI TXINDORRA

Arrainak ez izan arren ura behar dogu biziteko. Eta horixe izaten da edonora joanda be, nire begiak lehenengoz bilatzen dabena.

Argazkian agertzen dan errekea Javalambreko (Teruel) Torrijas izenekoa da. Paseo bat emon dogu erreka ertzetik, hara joandako hainbat lagunek. Eta Anariren "Harriak" kantaren zati bat etorri jata gogora.

...
*Beldurrak eta arrainak
Hil arte hazi eta hazi eta hazi
(...)*

Arrain bat oparitu dizut, nola hazten den ulertzeko, zenbat ur behar duen arnasteko, zenbat ur bizitzeko. (...) beldur bat oparitu nahi dizut nola hazten den ulertzeko, zenbat zu behar duen arnasteko, zenbat ni bizitzeko.

Ez arrainik, ez beldurrik astegoiaren honetan. Arnasteko eta biziteko behar genduan ura, behar genduzan zu eta ni beste erreka ondoan.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorosti.cl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinikoa Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aiderkoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igone-Bizkaia
T. 94 631 30 39

Halegaitz Zentrua, 110
R.P.S. 25/06

 **JANDONIZ**
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

IGORRE

Greba mugabakoa eta negoziazioak Negarra enpresan, 59 behargin ez kaleratzeko

Egoera konponduten ez bada, hilaren 16an greba mugabakoa hasiko dabe Igorreko Negarrako berharginak.

Erredakzioa

Enpresek bertan lan egiten daben langileen herena kaleratzeko asmoa agertu dau, "lan erreformeak kaleratzea merkatu egin dauala aprobezauz" CCOO sindikatuak adierazo ebanaren arabera. Enpresa komiteak negoziatiko prest dagoala adierazo deutso BEGITURI, eta apirilaren 10ean Igorreko alkateagaz batu zan "bitartekari lanak egiteko eskatzeko". Beharginak kaleratzeak aurreikusten dauan dosierra kendu arte greba egiteko prest

dagozala dino Alex Azpiri LAB-ekoak.

Igorreko fabrika 177 beharginek egiten dabe behar, tximinia eta termo elektrikoak fabrikatzen. Horreetatik 59 lan egindako urte bakotzeko hogeie eguneko kalte-ordainagaz kaleratuko ditu Negarrak dosierra aurrera atera ezker. Sindikatuak 54 urte baino gehiagoko beharginak dagozala talde horretan jakinarazo dau, sano adin txarra beste lan bat topetako.

Lan erreformeak dino erregulazino dosierrek ez dituala Ad-

ministrazioak baimendu behar; nahikoa dala enpresek justifikatzea hiru hiruhilekotan jarraian jaitsiera izan dauala diru sarreretan. Igaz galerak izan zituala eta aurten eskarrietan jaitsiera izan dauala esan dau Negarrak.

Greba mugabatea

Hori dala eta, apirilaren 16tik aurrera greba mugabakora deialdia egin dau enpresa komiteak. Grebaren helburua "enplegua erreguletako dosierra bertan behera itxiazotea da eta negoziatiko prozesu bat zabaltzea". LABek dino "ez dauala ezelangoko kalertzerik onartuko".

Enpresek ez badau atzera botaten erregulazino dosierra, beharginak mobilizazino gehiagoko onartu daiekiz astelehenean izango daben asanbladan.



Negarra enpresea.

AREATZA

Udalak autoak maileguan ipiniko ditu

Areatzako Udalak hiru auto ipiniko ditu maileguan. Apirilaren 21ean Areatzako mobikortasun egunean egingo da zerbitzu honen aurkezpena.

Erredakzioa

Zerbitzuak autoa eukiteak dakarzan gastuak izan barik, autoa

eukiteak dituan abantaila guztiak eskeintzen ditu. "Alde batetik, autoa erosi ezin dabenai autoa

eskura ipinten deutse, gizarte justuagoa eginez. Bestetik, mobikortasun jasangarriaren alde egiten dau, garraio publikoak osotuz" azaldu deutso BEGITURI Josu Basozabal Areatzako alkateak. Izan be, holan konpartiduten dan auto batek "berrogei, berrogeta hamar personari emoten deutso zerbitzua, sistema hau ondo garatuta dagoan herrialdeetan" dino lker Maguregi proiektu honetako mobikortasun teknikariak.

Auzokarrek ahalbideratzen dau auto bat beti eskura eukitea, baina erabilten dan denporagaitik bakarrik ordainduta, autoa mantentiduteaz arduratu barik. Izena emon eta urtean 20 euro ordaindu behar dira. Dana dala, garagarriaren 31 baino lehen izena emon ezker, 2012ko kuota ez da ordaindu behar. Autoak eleiza atarian egongo dira eta erabiltzaileak 0,22 euro ordaindu beharko ditu kilometro eta 1,5 euro orduko.

Renault markako hiru modelo dagoz aukeran, Clio, Megane Berlina eta Kangoo Combi Profesional. "Kontuan izanda auto bat urtean 3.500 euro inguruko

gastua dala, 1.500 km baino gitxiago egiten dabenak dirua aurreztuko dabe" dinoe udaletxetik.

Sari baten finantziatzeagaz atara da aurrera

"Proiektu hau beste izen bategaz sortu zan. Udalsarea 21en lehiaketa batera aurkeztu ginan. Auto konpartiduen idea aspalditik etorren, mobikortasuna jasangarriagoa egiteko zer egin geinkean pentsetan hasi ginanetik. Eta sari bat lortu genduan. Saria zan proiektua finantziatzea % 75eko diru laguntzeagaz" gogoratu dau Basozabalek.

Maguregik esandakoaren arabera, ekimen hau Bizkaiko hainbat lekutan dago martxan. Uribe Kostan, berbarako, mankomunidadeak zazpi auto ditu maileguan eta Bilbon be, badagoz auto batzuk.

Europan "hogeie urtetik gora dira hau sortu zanetik. Amsterdam-en 1.000 bat auto ditue honetarako, eta bakotzak 50 persona ingururi emoten deutso zerbitzua" dino Maguregik

Hamar bentaja

Ekimen honen hamar bentaja aitaturten dabez udaletxekoak:

- 1-. Autoa eukiteko modu erosi eta merkeena da, autoa eukiteak daukazan desabantaila barik.
- 2-. Auto propioa eukiteak daukazan gastuak ahazteko aukerea emoten dau: aseguruua, erregaia, mantentimentua, garbitu beharra...
- 3-. Garraio publikoaren osagarri bikaina da, ohiko garraioak baino askatasun handiagoa emoten daualako.
- 4-. Ibilgailu partekatuek diranez, herri garbiago eta ke gitxiagokoak eukiten lagunduten dau Auzokarrek.
- 5-. Erregaia eta energia aurrezten laguntzen dau.
- 6-. Aparketako leku gehiago dago. Izan be, auzokar bakotzak 6-8 auto partikular ordezkaten ditu, batz beste.
- 7-. Modernoagoak eta motorizatino apalekoak diralako, ibilgailu gehienak baino garbiagoak eta eraginkorrakoak dira Auzokarrekoak.
- 8-. Ekonomia jasangarriako atea zabaltzen ditu, autoak modu arrazoizkoagoan oinarritutako mobikortasun kultura bateri esker.
- 9-. Auzokarrek autoaren erabile-rea demokratizetan lagunduten dau. Autoa erosteko aukerea ez dabenai, autoa erabilteko modua emonaz.
- 10-. Auzokarrek mobikortasun jasangarria, eraginkorra, ekologikoa eta ekonomikoaren aldeko apustua egin daben munduko 10.000 herrien taldean ipinten dau Areatza.

Udaleko auto mailegua

Auto bat beti eskura, baina erabilten dan denporagaitik bakarrik ordaindu eta bera mantentzeaz baina arduratu gabe. Horixe duzu, bada, AUZOKAR.

Areatzako Udaleren zerbitzu bat duzu hau. Berez balitzeko, eman diezazkizu jedanik zure izena urtean 20 eurogaitik soilik, baina uztailearen 31 baino lehen egiten baduzu, 2012ko kuota aurreztuko duzu.

Eliza atarian aparkatuta egongo diren autoak erabiltzeko prezio bera izango du beti: 0,22€ egindako kilometroko, eta 1,5 € orduko.

Hiru Renault modelo daukazu aukeratzeko: Clio, Megane Berlina eta Kangoo Combi Profesional.

Eman egizu izena uztailearen 31 baino lehen eta aurreztu aurtengo kuota.

Auto propioa edukitzeak dituen abantaila guztiak, baina horiek dituen eragozpenik gabe

- Ordutegi alda daitezkeela, AUZOKAR ondo baino hobeto dirarik...
- nozen baten sari emon eta den bigarren auto heri ordutegi...
- Bilbon mantentze bat eta administratze paperek egitea jartze...
- aldare bako-guztendak garbitze eta Gabiguruaren ematek...
- oplatoren norabid bideratze jartze...
- guzt seme-aldeak eskatu kargoko eta/edo kontuak aherretara eramatek...
- Gertatzen giteko edo arduratzen horik zere biderk...
- eta, alden biderk, gertatzen gertatzen publikoan biderk eta arduratzen itzu biderk ez biderk.

Auto bat, baina bera, 3.500 € kaleratze da urtean, bera AUZOKAR eta diru sarrerak bera emon du urtean 10.000 € herri laguntze-egite dutek urteko gaitze.

Auzokarren foiletoa.

Erregaia eta energia aurrezten laguntzen dau Auzokarrek

ARRATIA

Arratia-Nerbioi eskualdearen hazkundera bultzatzeko plana eratu dau Gorbeialdek**Erredakzioa**

2012an zehar, Gorbeialde Landa-garapenerako alkar-teak 18 neurritz osotutako jardueraren plana abiarazoko daua jakinarazoz dau Peli Manterola gerenteak, "gaur egungo egoera ekonomiko zailan Arratia-Nerbioi eskualdearen hazkundera ekonomikoa, errentagarritasuna eta leihakortasuna sustatzeko".

Hezkuntza-arloan be esku hartzeako asmoa daukie Gorbeialdekoak, eta eskualdeko alkar-tearen arduradunaren arabera, programa barrizalea lantzean dabiz ikastetxeetarako, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailagaz batera, "Berritzegune" hezkuntza-sarearen bitartez.

Aurten egin gura dituen beste

egiteko batzuen barri be emon dau Manterolak: landa-garapen alorreko diru-laguntza publikoak bideratzea, baserriaren azoka eta feriak bultzatzea, lehen sektorearen plan estrategikoa sendotzea, larre eta bazkalekuak hobetzea, nekazaritza lurren bitartekaritza bankua sustatzea, baso-biomasaren erabilera bultzatzea eta Gabon-otzarak bertoko produktuakaz egiteko eskaera

zabaltzea, besteak beste.

Alkar-tearen beste zeregin nagusietako bat eskualdea osotuten daberen udalen zerbitzuak hobetzea da. Eta ildo horretan be helburuak ipini ditue: Interneten hedadura zabaltzea eta teknologia barriak landa-eremuetara hurreratzea, eskualde barruko garraioa hobetzea eta mendialdeko kultura ondareari balioa emotea.

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkar-tea
Asociación de Desarrollo Rural

IGORRE

Lurrarin rock 2012 antolatu dau Gazte Asanbladeak**Ainhoa Duñabeitia**

Igorreko Lurrarin Gazte Asanbladak bigarren urteurrena ospatuko dau apirilaren 21ean. Horretarako egun osoko jai antolatu dabe gazteak Garbeko aparkalekuan.

Goizean zehar, Zaztaparrak Asti Taldearen laguntzeagaz eta 11:00etan hasita, jokoak egongo dira. Jokoak amaitu ostean, bazkaria egongo da Garbeko karpan. Bertan bazkaltzeko txartelak egongo dira salgai Igorren ohiko lekuetan. Tripa ondo bete ostean denporapasak egongo dira eta sorpresea.

Gainera, Ugaoko batukada talde baten laguntzeagaz herri guztian zehar batukada-poteo egingo da. Poteoa Kukuma tabernan amaituko da eta bertan Exaixu taldearen kontzertua ikusteko aukerea egongo da. Kontzertu hau amaitu ostean, karpan beste kontzertu batzuk hasiko dira The Mockers, Kaotiko, Jeimon Turk Band eta Zirkinik bez taldeen eskutik.

LURRARIN ROCK 2
Apirilak 21, Igorre

11:00 Umean jokuak
14:30 Bazkaria ostean sorpresa
18:00 Batukada-poteoa
20:00 Kontzertuak Kukuman: Exaixu
22:00 Kontzertuak:
The Mockers
Kaotiko
Jeimon Turk Band
Zirkinik bez

LAGUNTZAILEAN:
Herrikoak, Katalana, AR Rugby, Eganak, Gai Lera, Urtzaparrak, Hagarakina, Rikilaino, Sergio, Aldea, Errolagana, Zuluaga, Donibano, Iza Exilak, Urtzaparrak.

ARRATIA

Ariketak egiteko espazio barria Arratiako Egoitzan**Erredakzioa**

Arratiako Udalen Mankomunitateak jakitera emon dauanaren arabera, maiatzean, Dimako Arratia Egoitzak espazio barria izango dau persona nagusiak gimnasia egin dagien. Han, moduluetan banandutako aparatuek egongo dira eta aparatuek honek entrenimenturako ezeze, goiko zein

beheko gorputz adarrakaz ariketak egiteko erabili daitezke. "Lesinorik edo kalterik ez sortzeako diseinatu dagoz eta, hortaz, jarraibideak zuzen bete ezker, edonork erabili leikez. Moduluetako bakotxean informazio panelak dagoz eta bertan azaltzen da zertarako balio dauan aparatuek bakotzak eta zelan egin behar dan ariketea" dinoe.

ARRATIA

Kamioi baten adjudikazioa onartu dau Mankomunitateak**Erredakzioa**

Hondakinak eta zaborrak jasoko dituan kamioiaren adjudikazioa onartu eban Arratiako Udalen Mankomunitatearen Udabaltzak, aprileko newsletter AUMeko agerkariak jakitera emon dauanaren arabera. Agenda 21en barruan diru-laguntzea eskatu jako Bizkaiko

Foru Aldundiari. Eskaerearen zenbatekoa 165.000 eurokoa da eta laguntzearen guztikoa % 50ekoa. "Horri esker tamaina handiko zaborrak hobeto bildu ahal izango dira -alde aurretik eskatuta-. Etorkizunean edukiontzia lekuz aldatzeko eta inausketa lanen hondakinak batzeko be baliko dau" informau dabe.

Maiatzaren 17an zita bat daukazu Lemoan
Ez egin planik egun horretarako

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Euzkoan, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf: 631 33 30 • 631 31 31
Fax: 631 36 15

expert **ARRATIA**
E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agire, 15 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

Tel. 94 631 60 01 • email: info@aramotz.com
ARA OTZ
Landa-eremua 0 Jabetzen!
Punto Ugarrena 2 de - ADRI Dena - Ibaigane www.aramotz.com

ARRATIA

"Lau edo bost urteko epea eta interes bakoa" da EAJ-PNVren proposamena udalen zorra kentzeako

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitatearen Gobernu Batzordeak txosten juridikoa aurkeztu eban martian, udalen zorra aztertu eta udalak zor hori pagetako formulak bilatuteko. "Zorraren kuotak atzeratzen diranean, interesak ipintea ahalbidetzen dau legeak, eta horixe jasoten dau txostenak. Guri txostena egitea eta planteamentu tekniko eta juridikoa egitea jagoku, gero politikoak ebazten dabe zer egin" azaldu deutso BEGITURI Maren Iturbe UAMeko idazkariak. EAJ-PNVk interesik ez ipinteko proposamena egin ebalda argi itxi gura dabe mankomunidadekoak. Izan be, hedabideetan agertu danak bestela gertatu zala pentsetara eroan ahal dau.

Hurrengo osoko bilkuran emongo deutseez botoak udalai ordaintzeko erreztasunak emoteko formulen proposamenai. Dana dala, apirilaren 3an, proposamenak egin zituan talde bakarra EAJ-PNV izan zala azaldu eutsan BEGITURI Iñaki Olabari mankomunidadeko gerenteak. "EAJ-PNVk hiru gauza proposatzen ditu: udalak zorra lau urtetan eta, Dimako kasuan, bost urtetan, ezelako interes barik kentzea; ordaintekak hiru hilabetez behin egin beharrean, hileroko kuota bat ipintea -eta honegaz udal guztiak egon ziran ados-; eta ordaindu beharreko datatik hiru hilabete pasau arte ez joteko ordaindubakotzat".

Bilduk denporea eskatu dauala eta hurrengo bileran, bagilan, proposamenak botau egingo dirala

dinoe mankomunidadekoak.

Zorra kentzeako moduak

Legegintzalditik harago doan epea proposatzen dabe mankomunidadean zorra kentzeako. Lau urteko epea Diman izan ezik. "Dimak zorrik handiena dauka eta Josune Gorospe presidentek eskatu eban Dimaren kasuan bost urteko epea ipinteko. Dimako Udalak berak eskatu eban gauza bera" dino gerenteak. Eta finanziaizino hau ezelako interes barik egitea dala PNVren proposamena argi itxi gura dau Olabarrik.

Deialdiak egiteko epea

Bildu eta Alkarlanien-ek BEGITUK 161. zenbakian jaso eban prensa ohar baten kejetan ziran "denporaz justu" bialtzen dirala deialdiak. Mankomunidadeko idazkaria ez dator bat honegaz. "Bilkura aurreko astean, batzordean bilkuran tratuak diran gaiak tratetan dira. Eta, gitxienez, batzordea baino aste-bete lehenago bialtzen dira dokumentuak eta informazio guztia. Beraz, bilkuran tratuak dan guztiaren informazioa helarazoten jakie hamabost egun lehenago".



Mankomunitatea.



JESUS CAÑAS TARAVILLO
Tel. 94 630 92 20
jscanas@movistar.es
Gregorio Mendibil kalea, 12

IGORRE

Marinaledako alkateak berbaldia emongo dau

Erredakzioa

Herritarren etexebizitza bermatzea helburu daukien ekimenak eta herrian enplegua sortzeako ekimenakaitik da ezaguna batez be Marinaleda (Sevilla). Igorreko Udalaren ekimenez, apirilaren 23an berbaldia emongo dau Igorreko Kultur Etxean, 20:00etan, Juan Manuel Sánchez Gordillok. Marinaledako alkateak, "Construyendo la utopia desde el nacionalismo" izenburupeko berbaldian "udalgintza parte-hartzailearen eta bere herriko esperientziaren inguruan" egingo dau berba. Marinaleda "erreferentziala da gai honetan, urteak daroezalako udala modu parte-hartzailean

kudeatzen, asanblada zabalakaz, auzolanagaz eta beste ekimen batzuekaz" azaldu dabe udaletik prensa ohar batez.



Juan Manuel Sánchez Gordillo.

Berbaldi hau, Igorreko Udala herritarren parte-hartzearen inguruan egiten dabilen lanaren barruan dago. Izan be, 2011ko abenduan foro bi antolatu ziran Udalaren eskutik Igorreko parte-hartze sistema osotuten has-teko. Saioteko baten, kanpoko esperientziak ezagutarazo ziran, Otxandiokoa bata eta Marinaledakoa bestea.

begitu 10 urte
arratia ubide zeberio

apirilak 20, 20:00etan
Igorreko Kultur Etxean
ostean kopautxo

jaia

webgune barriztuaren aurkezpena
10 urtetako historia

Sorpresa itzela

Bideoa Maider Yabar Antzerkia
Juanma Labandibar
Eneritz eta Marina

10 urte, hamar herri,
hamaika ekintza

ABEL ARIZNABARRETA

"Eskoleak balio erantsi handiagoa ekarri beharko leuskio ikasleari"

Orain arte ikutuezinak irudien hezkuntza eta osasuna arriskuan dagozala nabarmen geratu da aspaldi honetan. Zein egoeratan dagoz eskolak eta ikastolak? Gure gazteai ganorazko heziketea bermatzen deutsee? Abel Ariznabarreta dimoztarra Ikastolen Elkarteko pedagogia alorreko arduraduna da eta harek erantzun deutsez gure itaun guztiai.

Erredakzioa

Ikastolen Elkarteko pedagogia alorreko arduraduna zara eta Euskerazko Komunikazio Taldeko administrazio kontseiluko kide be bai. Zelan buztartzen dozu lanbide bi horreek?

Hasteko, biak ez dira lanbideak. Lehenengoa bai, lanbidea da. Bigarrena konpromiso soziala. Halanda be, badago loturirik bien artean. Bietan dago lana eta bietan dago konpromisoa. Nire ibilbide profesionalean zein sozialean euskerea, euskal gizarte eta hezkuntza, beti presente izan dira. Ez dot aitatzen hau ezelango aitortzaren bila, apaltasun osoagaz baino. Beste askorena izan dan moduan, horrelakoa izan da nire ibilbidea be. **Raxoiren murrizketak ikusita, hezkuntzaren arloko kezka honaino heltzean jaku. Horrek ez dau gurean eraginik izango? Eusko Jaurlaritzak orain arte beste diru inbertiduten jarraituko dau hezkuntzearen kalidatea bermatzeko?**

Eusko Jaurlaritzak aspaldian itxi eutsan beste arlo batzuetako moduan, hezkuntzan be, orain arteko diruak jartzeari. Nik ikasto-

letan lan egiten dot orain, Raxoik agorik zabaldu aurretik ikastolatan ondo ezagutu dabe murrizketak zer diran. Eta hezkuntza sistemako beste sare batzuetan be bardin gertatu da. Zapatero hasi zan murrizketetarako deia egiten eta Jaurlaritzak hari hori jarraitu dau. Orain Raxoik murrizketa horreek urrunago eroan gura dauz. Hezkuntza Sailak ideologikoki erantzun deutse murrizketa asmo horreei, baina, kontuz, ez hainbeste Jaurlaritzari jagokozan eskumenen defentsa eginaz. Aukera ezin hobea daukagu, Madrildik etorri daitezkean erasoak ikusita, daukaguzan eskumenakaz defendidu eta aurrera begira euskal hezkuntzearen esparru propioa eta burujabea aldarrikatzeko.

Ikastolak kooperatiba bat osotzen dabe. Azalduko deuskuzu hori zer dan?

Dinozun moduan, ikastolak, eta hau dinodanean titularidade sozialeko ikastolak esan gura dot, "Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba-Elkartea" deitzean dan erakunde batuta dagoz 2009tik hona, zazpi lurraldeetako ikastolak. Pausu handia izan da ikastolentzat, zeren eta orain arte lurralde desbardinatoko federazioetan batzean ziran eta



Abel Ariznabarreta.

gero erakunde nazionala federazioetako ordezkarien bitartez egiten zan. Berez, Hegoaldeko ikastola guztiak, Gipuzkoako bakanen bat izan ezik, kooperatibak dira; Iparraldekoak, Seaskakoak, ez. Baina orain, eredu federaletik eredu nazional garbira jauzia egin da. Nik uste dot eredu moduan interesgarria dala, ez bakarrik ikastolentzat, zazpi lurraldeetako Euskal Herria erreferentzia hartzen dauan edonorentzat be bai.

Zein lotura dago gurean, sare publikoa eta pribaduen artean?

Zehaztopen bat, itaunari zuzenean erantzun baino lehen. Hego Euskal Herrian dagozan ikastetxe pribadu guztiak itunpekoak edo kontzertauak dira, hau da, finantzazio publikoaren bitartez mantenduten dira. Finantzazio hori ikastetxe bateko

finantzazioaren ehuneko laurogei ingururaino iritsi daiteke. Niretzat, sare biak sistema bereko, hezkuntza-administrazioak egindako planifikazio bereko eta zerbitzu publiko bereko osagaiak dira, zeren eta hezkuntza azken batean Giza Eskubide bati erantzuteko zerbitzu publikoa da. Zerbitzu publiko bakarra, gure kasuan, bi titularidade mota desbardinatoko ikastetxeen bitartez erantzuten dauana.

Zertan datoz bat eta zertan ez ikastolak eta sare publikoa?

Honetaz, eta ereduari erreparatu, zeren eta beste atal batzuk begiratu gatzagoa da, hasteko esan leike baten kudeaketea, gestinoa, funtzionaria edo administratiboa dala, publikoarena. Ikastolena, ordea, soziala da, kooperatiboa. Gaur egun indarrean dagoan eredu juri-

Madrildik etorri

daitezkean erasoak

ikusita, daukaguzan

eskumenakaz

defendidu eta

aurrera begira euskal

hezkuntzearen esparru

propioa eta burujabea

aldarrikatu behar dogu



diko-administratiboan ikastolak pribaduak dira. Ereduak ez dau beste aukerarik emoten. Baina edonoz publiko eta pribaduaren arteko izaera bat aitortuko balitz, izaera kolektibo eta kooperatibo bat, esate baterako, ikastolak hor egongo litzakez, Euskal Herriko beste ekimen sozial askoren moduan. Berez, gaur egun ekonomian egiten da bereizketea, ekonomia pribadua, publikoa eta sozialaren artean. Ez leiteke txarto egongo euskal gizartearen ezaugarri parte hartzaile propioai erreparauta noz edo noz hirugarren eredu horrek gure esparru juridiko-administratiboan leku bat eukitea.

Eta ereduaz aparte beste atal batzuk begiratuko bageunkez?

Hor gatzagoa da konparazioak egitea. Hasteko, ikastolak talde homogenea dira, bakoitxak bere berezitasunak badaukaz be. Sare publikoan ez dago eskola-talde kulturarik. Ikastolak talde moduan euskera eta Euskal Herriaren alde, baina bai eta be kalidadearen alde, curriculum propioaren alde, eta abar, kudeaketa homogenea egiten dabe. Eskola publikoan ez horrenbeste, talde bakar bat moduan behintzat. Gero, talde jardunaz aparte, hezkuntzan estrategikoak diran eskola material propioa lantzea, profesionalen prestakuntzea eta I+G-B propioa lantzeako planteamenturik ez dago sare publikoan, Hezkuntza Administrazioak berak markean dituan ildoez aparte. Ikastoletan, bai. Berez, ikastolen eskola eredu bakarra da mundu osoan, eta ezaugarri oso ondo identifikauta dagoz.

Igaz aurkeztu zenduen Euskal Curriculum. Zer da? Zeintzuk dira bere ezaugarriak?

Euskera izan zan ikastolen helburu estrategiko nagusia XX. mendean, Euskal Curriculum da XXI.ean. Hau da, hizkuntzaz harago, ikasleak ikastolan, ikastegian, jaso beharreko ezagutza, bertakoa eta unibersala, eta landu beharreko konpetentzia eremu zabala. Hori da Curriculum. Euskera, ikastolan eta hezkuntza eremu zabalean, helburu izan zan orduan; errealidadea da gaur egun, zorionez, Euskal Herri osoan homogeenoki ez bada be. Bardin gura dogu Euskal Curriculumagaz.

Lehen esan dozu igaz aurkeztu genduala Euskal Curriculum. Berez badira urte batzuk ekimen hau aurkeztu genduala. Ibilbide luzea egin genduan Kristau Eskolagaz, Sortzen-Ikasbatuazegaz, sare publikoko beste eskola batzuek eta Hezkuntza Administrazioagaz beragaz. Egia esan, ni neu Eusko Jaurilarizan



Hekuntza sailburuordea izan nintzan garaian, Anjeles Iztueta Sailburu zala, hasi ginan honetan. Une baten eskola curriculum batek sekula izan dauan babes sozialik zabalena landu izan da ikastolak abian jarritako ekimen honetan. Orain bakoitxak bere esparruan landu behar dau adostutakoa, eta ikastolak hor dabiz hartutako konpromisoa bere esparruan lantzean. Gure kasuan konpetentzietan oinarritutako curriculum lantzean dogu.

Konpetentzietan oinarritutako curriculum?

Bai. Definizino errez bat egin beharko baneu, definizino zientifikoak, pedagogikoak, zehatzagoa izan beharko leuke eta, esango neuke konpetentziak dirala ikasleak bere ikas-garaia amaitzen dauanean menperatu behar dituan gaitasunak. Bost gaitasun-multzo nagusi identifiketan doguz: ikasten ikastea, nor bera izaten ikastea, besteakaz batera jarduten ikastea, komuniketan ikastea eta egiten eta ekiten ikastea.

Konpetentziak mundu guztia- ren agotan dagoz une honetan hezkuntzan. Ez da gure asmakizuna. Europako Batasunean

bere garaian holan bideratutako eskola ildo da. Curriculumean konpetentziak landu behar dirala esaten da. Guk curriculum bera konpetentzietan oinarritu behar dala dinogu. Esan bakarrik ez, guk lantzean doguzan ikasmaterialak, irakasleen prestakuntzea, horretara bideratzen doguz. Gurean eragin handiko erizpidea da hori.

Zein da gure gazteak jasoten daben hezkuntzeari buruz egiten dozun balorazioa? Zeintzuk dira erronkak?

Gazteak eskolan jasoten daben hezkuntzaz itauntzen badeustazu, zeren eta hezkuntzan gizartea, familia, eta abar be maila berean dagoz inplikauta, eskolakoan erreparauta eretxi gaziagoa daukat. Gozoa, konparazioan Ikastoletako datuak eta orokorrean Euskal Herrikoak Europa mailakoak konparautu txarto geratzen ez garalako. Baina geuretzat daukaguzan helburuetatik ez gagoz gertu. Eskolak, eskola bakoitxak, haurrak edo gazteak etxetik dakarrenari balio erantsi nabarmen handiagoa ekarri beharko leuskio gaur egun ekarten deusana baino. Horretarako hezkuntza sistemearen egituraren aldaketak egin

beharko geunkez, irakasleen formakuntzan be bai, eta abar. Eskola itun zabala edo hezkuntza lege barria, Euskal Hezkuntza Sistemearen Legea, beharko geunkez horri guztiari behar dan moduan aurre egin ahal izateko.

Euskal Herrian ETArein jarduna amaitu da, baina indarkeria ez. Hor dago emakumearen aurkako indarkeria. Euskal Curriculumean aurreikusten da honetaz zer edo zer?

Ikastolen kasuan, bai. Guk plan propioa daukagu bakegintzan jarduteko. Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntza bultzatzen dogu. Oraintsu Jardunaldi Pedagogikoak egin doguz, honetaz gogoeta egiteko, arrakasta handiagaz.

Euskerazko Komunikazio Taldeko Administrazio Kontseiluko kide be bazara. Zer da hori?

BERRIA egunkaria eta aldameneko beste komunikazio-ekoizpen batzuetan diharduan enpresa gara. Soziedade Anonimo eredu enpresak Administrazio Kontseilua izaten dabe bere ildo estrategikoak landu eta horreen inguruan ebatziak hartzeako, ildo horreen kudeaketearen jarraipena egiteko eta zaintzeko. Hori egiten dogu guk be.

Mobimentu handia dago momentu honetan, hedabideetan eta kazetaritza arloan orokorrean. Zein egoeratan dagoz euskal hedabidedak? Zeintzuk dira daukiezan erronkak?

Orokorrean komunikabideen arloa dago zeharo astinduta. Paradigma aldaketea dago, teknologia digitalak pikutara bota dau urteetako *statu quo*-a prensa, irrata eta telebistearen artean. Nahasmendu horretan euskal medioetan, ahulezia historikoa kontuan hartuta, noraeza handia da eta guztiz defensiban dagoz. Orain arte egiten dan guztia ondo dago, baina ez da nahikoa, erresistentzia hutsa da. Iraun arazoteko ahalegina da, baina oso urrun gagoz zurrunbilotik urtetako estrategia aurkitu izatetik.

Zelan doa "Zure ziztada behar dogu" Berialagunen kanpaina?

Euskerearen alorrean diharduan ahalegin gehien antzera, estrategia enpresarialetan eta merkaduetan asmatzerako orduan oso trebeak ez garan moduan, ordea, alkartasun jardunak bideratzerako orduan oso erantzun baikorra jasoten da euskal gizartearen aldetik, gizarte horretako zati esanguratsu batetik behintzat. Ziztadaren kanpaina da horren adibide bat. Oso ondo doa, eta horretan sakondu beharra dago.

Ziztadaren kanpaina oso ondo doa, eta horretan sakondu beharra dago

FUTBOLA

Lemoak ia ezinezko dauka Federazino Kopa irabaztea

Aprilaren 12an jokatu eben Mallorcako Binisalem taldeak eta Lemoak Federazino Kopako finalekoa joaneko partidua.

Erredakzioa

Emoizta sano txarra lortu eban Lemoak 5-0 galdu eban eta partidua. Bueltakeo partidua 19an jokatu da Arlonagusian.

Ligan osterata matematikoki Lemoa 3. Mailako taldea da 5-0 galdu ostean Alavesen kontra. Partidu honetan protesta lez lehenengo minutuan belauniko egon ziran Lemoako taldeko jokalariek, aurtan oraindino ez dabelako euro bat bera be kobrau. Jokatu dauan azken partidua 0-0 bardindu eban Lemoak Arandina-rena kontra.

Arratiako mutilak osterata partidua bakarria jokatu dabe hamabos-

taldi honetan. 2-0 irabazi eutsan Gatikari hilaren 14an Urbietan jokatu partiduan. Ligea amaituteko 6 partidu falta diranean lehenengo da Arratia 65 puntugaz. Arratiako neskek be lehenen-

go jarraituten dabe. Ez dabe jokatu partidurik hamabostaldi honetan eta hurrengo Peña Athleticen kontra jokatu dabe Urbietan hilaren 21ean, zapatua, 19:45ean.



Lemoako jokalariek belauniko Mendizorrotzan.

MENDIA

Gorbeiarra igoko dira Ubideko Biran parte hartuko daben gehienak

Erredakzioa

Sano gogorra izan arren Ubideko Biraren ibilaldi luzea, partaide gehienak hauxe aukeratuten dabe, seguru asko, Gorbeia mendiaren erakargarritasunari esker. Izan be, momentuz, izena emon dabenen bi herenak Gorbeiaren tontorra zapaldu eta 33 km egiteko prest dagoz.

Ubideko Bira apirilaren 22an izango da eta 08:00etan urtengo dira plazatik ibilaldi luzea egingo dabenak eta 08:30ean laburra (19 km) egin behar dabenak. Egun horretarako eguraldi iragarpenak ez daukala euririk egingo eta 18°C egingo dituala aurreikusten dau. Eguraldi aproposa, beraz, mendian ibilteko zein argazkiak aterateko. Izena emotean 10 euro pagau behar dira egun berean egiten bada,

eta 7 euro aurretik internetetik egin ezkeru.

Jentetzeak hartzean dau parte urtero-urtero bira honetan. Izan be, alde batetik, Gorbeia mendia dago ibilbide luzean eta bestetik, jai giroa bermatuta dago menditik bajatukeran.

Mendiko bueltea egin ostean, plazan, sagardoa, txorizoa eta gaztaia egongo dira parte hartzaileentzat, eta Ubideko gaztaia edo jaboia erosteko aukerea be bai. Gainera, "herritik poteoan be, Hiru Handiak egingo doguz, Herriko Taberna, Batzokia eta Gorbea tabernetatik" dinoe antolatzaileak.

Ubideko Biran parte hartu eta ibilbide bat osotuten dabenak edalontzi bat izango dabe opari moduan, hamaiketako doban eta Ubideko produktuen otzara baten zozketan be hartuko dabe parte.



Ibiltariak Ubideko Biran.

Argazki lehiaketa

Ibilbidean argazkiak atera eta argazki lehiaketan parte hartu leiteke. Argazkiok Ubideko Bira, San Juan 4, 48.145 Ubide (Bizkaia) helbidera edo ubidekobira@gmail.com helbide elektronikora bialdu behar dira. Epaia urrietan izango da eta irabazleak Urbide jatetxean persona birentzako bazkaria edo afaria izango dau sarizat.

PELOTEA

Izei Gomez eta Iñigo Markina Udaberri txapelketan irabazle

Erredakzioa

Udaberri txapelketearen bigarren mailako finala Usansolon izan zan Durangoko bikotearen kontra.

Partidua nahiko bardinduta hasi bazan be, errez irabazi eben Igo-rrakoak: 22-8, hain zuzen be.

Sano denporaldi ona egin dabe bai Izei Gomezek bai Iñigo

Markinak. Markinak, Gomezegaz Udaberri txapelketea irabazteaz ganera, aurtan Bizkaiko banakako trinkete txapelketea be irabazi dau. "Denporaldi ona izan da, biok lan ona egin dogu eta garrantzitsuena, eskuak minduta ez izatea. Txapelketa hau irabazi dogun lehen aldia da eta sano pozik gagoz" adierazo deutso Izei Gomez txapelkunak BEGURI.

Umeen moda 0-20 urte

- Botoli
- Ray
- Aranda
- Akur
- Guisabier
- Aranzaga
- Grandak
- Iñe
- Hassan

sein

LEHENDAKARI AGOIRE, 27 • 945 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola

TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ

Balonen: A1, A, B7E #

Lehendakari Agorre 31
Tfn: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

AKESOLO, S.A.

GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK

Garbe, 29 • Telefonoa: 94 673 60 14 • IGORRE BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA

Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajiarigerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfn: Faza 94 6312576 • Mug. 647405115

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

axular

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar

instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

AKEITEGIA

GAY & LORA

IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 • Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DOKU KONSTRUETAN
ONDARUN HIGAZZINEN
ASBUKURTAN

Sabino Arana, 3 Tfn: 94 673 71 41 • Fax: 94 673 64 01 • 48140 IGORRE

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

ekin s.a.

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIKAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASORRI BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Pinturas Aratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

RAID



Iñigo Ramos.

Mapak prest Arratiako I. Raid-erako

Aprilaren 21 ean Arratiako I. Raid-a izango da, Euskal Herriko Columbia Raid Ligako bost raidetako bat. Arteako plazan batuko dira partaideak 08:00etan eta 10:00etan hasiko dira orientazio probak. Bezperan hurreratzan diranentzat lo egiteko lekua egongo da eta proben ostean, bazkaria. Antolakuntzako Iñigo Ramosek emon deusku Arratiako raid-aren zehaztasunak.

Erredakzioa

Zelan sortu zan raid bat antolatuteko idea.

Xegiba taldeak eta AKKTK, bion artean, antolatu dogu. Idea printzipioz Xegiba taldekoa izan zan. Xegiba hemen inguruko raid talde bat da. Orduan AKKTKkook berotu ginan eta sartu ginan antolakuntzan. Xegibakoak beste raid talde batzuetakoakaz batera pentsau eben liga egitea. Eta guk egin doguna da proba honetarako montajea egin. Baina raid-a taldeen esku dago.

Non izango da?

Urteerea eta helmuga Artean izango dira. Gero orientazio proba bat danez ezin dogu esan nondik ibiliko diran partaideak, baina esparrua Arratia da. Artea, Dima, Zeanuri, Areatza...

Proben artean espeleologia be badago...

Bai, guk gauza berezi moduan espeleologia sartu dogu. Partaideak hiru baliza topau behar dabez koba baten barruan.

Zein kobatan?

Hori ezin dogu esan. Gero eskaladea. Eskaladea be egingo dogu Arratiako raid-ean eta patinetan be ibiliko dira partaideak.

Patinak leku asfaltatu baten, ezta?

Bai egon ginan pentsetan Areatzarantza egitea, baina uste dogu jente asko etorriko dala eta "onak" oso arin ibiltzen dira. Iruditu jakun oso estua zala bidegorri hori, eta bidea zarratutea lar da. Orduan Industrialdea inguruan egingo dogu. Bere berezitasunak eukiko ditu, bikotea banandu egingo da eta bakotzak bere ibilbidea egingo dau.

Beste proba berezi bat Santañañe inguruan egingo da. Iparorratzagaz ibilbideak-eta marketan.

Gogorra dirudi.

Guztira proba batzuk dira: oinez, bizikletan, eskaladea, espeleologia, orientazio berezia eta patinak. Baina bakotxaren abilitadea eta fisikoaren arabera egin daiteke karrera: oso gogor eta puntu

askogaz edo leuntxoagoa. Ia edozein personak egin ahal dau.

Ez dago zertan atleta izan.

Hori da.

Uste dot emongo dozuen janaria be ganorazkoa izango dala.

Bai. Guk pentsau dogu, Artean egiten diran ekintzen artean, jatekoak izaten dirala arrakasta handiena daukienak eta gure asmoa da, ez egitea bakarrik raid-ean parte hartzean dabeneztat, herrian giroa egon daiten, zabaldu gura dogu gura dauanarentzat. Gure idea da paellaren bat edo holango zeozer egitea plazan.

Zenbat bikotek emon dabe izena?

Momentuz hamarrek. Pentsetan dot 7 bikote mutilenak, misto bi eta nesken bikote bat dirala.

Baina gure prebisinoa da 50etik gora izatea. Jenteak azken momentuan emoten dau izena.

Arratiako zenbatek hartuko dabe parte?

Arratian zaletasun handia dago bai mendia, bai bizikletarako eta Oioneko raid-ean, martiaren 24 eta 25ean egin zan raid-ean, Areatzako bi edo hiru bikote egon ziran, Arteako beste bi edo hiru bikote, Igorrekoak, Lemoakoak, Dimakoak... Zortzi bat bikote egon ziran, eta holango esparru txikirako asko da, kontuan eukita Espainia osotik etorten dirala.

Raid honetan Arratiako sei bat bikotek parte hartzea espero dogu.

Guk ezin dogu parterik hartu,

badakigulako mapea zein dan. Xegibakoak be ez, eta horreek talde bi dira, eta ni be beste talde baten nago, Aitor Ormazabal be beste talde baten dago... horreek guztiak kendu behar dira.

Zeintzuk dira faboritoak?

Mundu mailan oso puntakoak dira Bidarrai taldekoak, Bilbokoak. Munduko bost-hamar talderik onenak hartuta, horreek barruan egongo lirateke, seguru. Hiru mutil eta neska bat dira, euskaldunak danak.

Eta gero, oso ona da Xegiba taldea. Azkenengo karreretan bigarren, hirugarren eta irabazi egin dabe. Oso oso talde ona da.

Nork egin ditu mapak?

Danon artean. Nik lan informatikoa egin dot, ordenagailuagaz mapak egin. Mendiak eta errekorridua, Gaizkak, Aitorrek, Carlosek, Ibaik, Xabierrek eta Imanolek. GPS-an ekarri, ordenagailuan deskargau, begiratu, markau... Ikaragarritzko lana, hilabete bi emon doguz.

Gero mapa horreek aprobetxauko dozuez, ez? Pena litzateke hainbesteko lana egun baterako.

Bai. Kontuan hartu behar da orientazio lasterketearen esparrua txikia dala. Erradioa 3 km gitxi gorabehera. Baina bizikletan 40 bat km izango dira. Gure asmoa hau urtero egitea da eta mapa horreek urtero errebiseteta aldaketak sartuz. Baina ezin doguz urtero mapa bardinak erabili. Izan be, ezagunak diran mapak ezin dira orientazio lasterketarako erabili.

Hauxe da Arratiako I. raid-a antolatu dauan lan taldea

Gaizka Agirre
Aitor Ormazabal
Juan Carlos Mangas

Kartelak:
Tamara Sanchez

Mapak editetan:
Iñigo Ramos

Ibilbidea zehazten:
Ibai Pinedo
Xabier Iturriaga

Intendentzia:
Josu Garai
Imanol Agirre

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ESKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbiztuak eta mantentze lanak

Igorriko Industrialdea, Pab. 07
Tel.Fax: 94 673 62 76
619 736 616
48143 Igoñe Bikoia

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoñe

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoñe

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezikuntza, Lehen Hezikuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezikuntza, Batxilergoak, Hezikuntza zikloak

MUSIKA ESKOLA 25 URTE

Arratiako Musika Eskolaren historia eta kontzertua batuko ditu ekitaldi batek

Aprilaren 28an, Igorreko Lasarte Aretoan arrastiko 19:00etan ekitaldi bat egingo dabe Musika Eskolakoak, 25. urteurrena ospatuteko.

Erredakzinoa

Bertan, historia honetako protagonistak Musika Eskolearen historia kontauko dabe; baita kontzertua eskeiniko, Areatzako Bandeagaz batera Musika Eskolako Bandak, eta Luis Iruarrizaga Abesbatzaz batera Musika Es-

kolako koroak.

Ekitaldia, Sebas Angoitiak aurkeztuko dau "Angoitiak aurkezten zituan Musika Eskolako lehenengo kontzertuak" azaldu deutso BEGITURI Victor Dominguez Musika Eskolako zuzendariak. Gero, Alberto Etxebarria Musika Eskolako presidentek

hartuko dau berbea eta honen ostean, Naia Rodrigezek. Rodrigezek, Iban Gortazarregaz batera Musika Eskolearen gaineko ikerketa lan bat egin dau, *Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak*. *Arratiako Musika Eskola 25 urte* libururako. Liburu hau maiatzaren 5ean kaleratuko da, baina hilaren 28ko ekitaldian mugari garrantzitsuenak jasoten dauzan laburpentxo bat egingo dau egileak.

Berebeari musikeak hartuko deutso txandea eta Musika Eskolako Bandak Areatzako Bandeagaz batera emonaldi bat eskeiniko dau. Ostean, Edurne Gumuzio, eskolearen sortzaileetakoaren txandea izango da, eta barriro be, musikaz gozatzeko aukerea: oraingoan abesbatzak. Luis Iruarrizaga Abesbatzak eta Musika Eskolako koroak alkarre-gaz kantauko dabe.

Oroigarriak bananduko dira gero, 25 urte honeetan eskolari babesa emon deutesien hainbateri, eta, ezin zan bestela izan, musikeagaz amaituko da ekitaldia.



Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertuko irudia.

DANTZARI TXIKI EGUNA

Ehundik gora ume jantzan Diman**Erredakzinoa**

Dantzari Txiki Eguna ospatuko da Diman, hilaren 22an. Aurtengoa, hamaseigarren urtea da Gazte Barri jantza taldeak jai hau antolatuten dauala. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaitik etorritako sei talde batuko dira, 130 dantzari txiki eta 20 bat musikari eta begirale. "Ehun eta berrogeta hamarretik gora batuko gara eta honeei, umeen gurasoak gehitu behar jakiez" azaldu deutso BEGITURI Tere Uribe-Etxebarria Gazte Barri jantza taldekoak.

Legutio, Otxandio, Beasain, Berri, Amurrio eta Dimako neska-

mutikoak batuko dira. "Batzuk aurreko urteetan egondakoak, beste batzuk lehenengoz etorriko dira gurera" dino Uribe-Etxebarria.



Igazko Dantzari Txiki eguna.

Egitaraua

11:00etan, umeak frontoian batu eta hamaietakoak.

12:00etan, kalez kale eta jantzan.

13:15ean, alardea herriko plazan.

Ostean, otzarearen zozketea.

14:30ean, bazkaria frontoi handian.

16:00etatik 18:00etara jaialdia.

EUSKEREA

Europako irakasle bi Arratiako euskerea ikertzen etorri dira

Jean-Léo Léonard (Parisko Sorbonne III Unibertsitateko irakaslea) eta Vittorio Dell'Aquila (Finlandiako Vasa Unibertsitateko irakaslea) Arratian izan dira egunotan, bertako euskerea ikertzeko. Horretarako, Léonard eta Dell'Aquila irakasleak hainbat laguni alkarrizketea egin deutsee, Arratiako aditzaren inguruan. Ildo horretatik, Arratiako euskereak "dialektologentzako berebiziko garrantzia" daukala azaldu dabe Léonard-ek eta Dell'Aquilik.



Vittorio Dell'Aquila eta Jean-Léo Léonard BEGITUGAZ.

Maria Gonzalez Gorosarri

Arratiako hainbat herritako hiztunak alkarrizketatu dabez Areatzan, besteak beste, Areatzako, Dimako eta Zeanurikoak eta bertako berbakerea ikertu dabe.

Jean-Léo Léonard eta Vittorio Dell'Aquila irakasleak Euskaltzaindian hitzaldia emon eben aprilaren 12an, Baionako egoitzan. Bertan, hizkuntza-kartografiaren inguruko proposamen barriak azaldu ebezan. Izan be, teknologia barriak hizkuntza-

kartografia lantzeako aukerak ikaragarri ugaritu dauz. Hortara, euskalkien maparako ekarpenez jardun eben.

Euskal Herriko biagea aprobetxauz, Léonard eta Dell'Aquilik Hego Euskal Herriko euskalkiak gertutik ezagutu gura izan dabez. Hiztunak bizkaierazko aditzaren formak zelan esaten dabezan ikertu dabe. Holan, bizkaiera bien arteko aldeari erreparau deutesie, bi aldagai nagusigaz ikerketzeko. Alde batetik, Oñatin (Gipuzkoa) izan barri dira



eta, bestetik, Areatza eta Dima hainbat lagunen hizkereari erreparau deusie. Horrenbestez, bizkaierazko aditza alderatu dabe: sartaldekoa eta sortaldekoa.

Oñatiko eta Arratiako euskerak bizkaierearen muturreko bersinoak litzatekez. Izan be, Gipuzkoan kokatuta egon arren, Oñati bizkaierearen muga herria da. Horregaitik, sortaldeko bizkaierearen adibidea litzateke. Arratiako euskerea, ordea, bizkaiera batuaren eredutzat hartu dabe, hau da, sartaldeko bizkaiera. Horretarako, Arratiako hainbat herritako bizilagunak alkarizketatu dabez, hala nola: Areatza, Dima eta Zeanuri. Gainera, euskerearen ezaugarri nagusia aditza izanda, hitanoaren trataereak "liluratuta" daukazala azaldu dabe irakasle biak.

Léonard eta Dell'Aquila irakasleen proiektuan parte hartu daben arratiarri eta lagunai eskerri beroenak eman gura izan deutseez, batez be, Gotzon Aurrekoetxeari, Iñaki Gaminderi eta Iñigo Iruarizagari. Hortaz, etorkizuneko proiektuetan be alkarregaz parte hartzean jarraituteko proposamenak badaukiezala aurreratu dabe. Lan-ildoetako bat euskerazko prentsea izango ei da. Léonard eta Dell'Aquilak euskerazko hedabideen errealidadea gertutik jarraitzen dabe. Are gehiago, Léonard-ek Maria González Gorosarriren euskerazko doktorego lanak "Europako tesi-izendapena" emoteko txostena idatzi eban. Alde horretatik, BEGITUK lantzean dauan bizkaierearen inguruan be interesautu agertu ziran bi irakasleak.

BEGITU 10 URTE

BEGITUK 10 urte egin dituala ospatuko dau



BEGITUREN erredakzioa Artean.

Erredakzioa

Aprilaren 20an, arrastiko zortziretan hasiko dan ekitaldi bategaz ospatuko dau BEGITUK bere hamargarren urteurrena. Aldizkariaren ardura daukan Zertu Kultur

Alkartek hainbat partaide eukiko dituan ospakizuna antolatu dau egun horretarako.

Holan, Lasarte Aretoko eszenara eskualdeko hainbat lagunek igoko dabe bariku horretan; besteak beste, Juanma Labandibar edota Eneritz eta Marina abeslariak, Maider Yabar trapezistea, bai eta Institutuko antzerki-taldeko ikasleak. Horrezaz ganera, bestelako sorpresaren bat egongo dala ziurtatu dabe antolatzaileak.

Atzera egiteko tartea be izango da egun horretan; izan be, BEGITUREN historia azalduko dau Igor Estankonak aldizkariaren sortzaile-taldeko kideak. Ibon Iza eta Joseba Rodrigezek egun horretarako beren-beregi zuzendutako bideoa be estreinauko da. Ekitaldiaren ostean kopautxoak egongo da.

www.begitu.org barriztaua

Zertuk ekitaldia aprobetxauko dau aldizkariaren webgune barriztatua aurkeztuteko. Alkarteko kideen eretxiz, sareko hedabideak gero

eta garrantzi handiagoa daukie, eta horrerri begira barriztaua dau web-gunea. Diseinu aldaketea ez eze, eduki barriak be eukiko dauz, beti be, herritarren partaidetzea indartuteko ikuspegiagaz. Besteak beste, barriak komentetako aukerea izango da, eretxi publikoan puri-purian dagoan gaien bateri buruzko inkestea, edota bideo eta argazkiak webgunera igoteko aukerea be bai.

Egun horretakoagaz hasiko dau Zertuk BEGITUREN hamar urteak dirala-ta antolatu dauan ekitaldi-zirkuitua. Alkartek urte osoan bananduko dauz ekitaldiak, aldizkariaren esparruko herri guztietan, urteurrena ospatuteko.

Orain dala hamar urte hasi zan kultur proiektuak aurrera egin ahal izateko ibilbidean lagun izan diran erakunde eta herritar guztiak konbidau gura dauz Zertu alkartek ekitaldira.



DUNBA

Lekeitioko biajea

Arteako eskolako LH 3. zikloko ikasleak

Kaixo Arratia, guk, Arteako eskolako LHko ikasleok Lekeitiora egin dogun biajearen gainean idatzi gura deusuegu. Urteera hau martiaren 26tik 28ra izan zan eta han euki genduan eguraldia bikaina izan zan egonaldiko egun guztietan.

Astelehen goizean hasi zan gure abenturea, Lekeitiora heldu ahala gure tramankuluak itxi genduzan logeletan eta herritik ibilalditxo bat egitera urten ginan. Bazkaldu eta gero errekreoa euki genduan eta honen ostean Otoio mendira igo ginan eta bertan dagoan talaian baleai buruzko berbaldia jaso genduan; zelan harrapatzen zituen, ho-

neen luzeerea eta abar.

Hurrengo eguneko goizeko hamarretan arraun egitera urten ginan, Lekeitioko portutik abiatu ginan, taldeetan banandu eta gero, talde batzuk San Nikolas irlaren puntaraino heldu ginan, gainera bueltan beste taldearen aurkako txanpa egin genduan eta guztiz lehertuta amaitu genduan. Arrastian, portura bueltatu ginan arrantza egitera, baina gure gelako inork ez eban ezertxo be harrapau. Gero, arrantzaleen itsasontzi bat ikustera joan ginan, zelako bizimodua arrantzaleena! Eguna bukatzeko pistetan olgau ginan portuko kaleen artetik.

Azkenengo egunean itsasargira joan ginan eta bertan simuladore batera sartu ginan eta



Lekeitioko portua.

bideo bi ikusi genduzan, gero "barku" batera sartu ginan eta ondo bazkaldu eta gero etxera

bueltatu ginan.

Hauxe izan da gure istorioa, ondo izan eta hurrengora arte!!



AGENDEA

APRILAK 17 IGORRE

Aprilaren 30a arte, *Ganzabal mendirik mendi* argazki erakusketea Kultur Etxeko erakusketa gelan.

APRILAK 20 ARTEA

Arratiako I. Raid-a. 20:00etan, taldeen harrerea. 21:00etan, lo egiteko lekua zabalduko da.

IGORRE

20:00etan Lasarte Aretoan BEGITU 10 urte jaia.

LEMOA

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta *stretching* saioa (luzamentuak). Ganzabalen lokalean.

APRILAK 21 AREATZA

Mobikortasun eguna: kaleak auto barik, jolasak umeentzako eta Auzokar-en aurkezpena.

08:00etan, mendi ibilbidea Parketxeak antolatuta. Ubide-Azero-Arimekorta-Ubide. Parketxean.

ARTEA

Arratiako I. Raid-a. 08:00etan partadeia harrerea. 09:30ean, azalpen teknikoak. 10:00etan, raid-aren hasierak.

15:00etan, lehenengo taldeen helmugaratzea. 17:00etan, helmugaren itxiera. 17:00etan, bazkaria. 18:00etan, sari banaketak.

IGORRE

Lurrarin Rock jaia. 11:00etan, jokoak Garbeko aparkalekuan. 15:00etan, bazkaria. Osteen batukada-poteoa. 22:00etan, kontzertuak Garbeko karpan. The Mockers, Kaotiko, Jeimon Turk Band eta Zirkirik bez.

22:00etan zinea *Los descendientes* filma Lasarte Aretoan.

LEMOA

"Itzartu" programearen eskutik *Break on stage* ikuskizunera urteera (Bilbo).

Lemoako Bola taldearen txapelketea Oban.

APRILAK 22 BEDIA

Ganguren antolatuta urteera Cruz de Canalto (938 m).

Arratiako Eleizak antolatuta "Arratia -Palenque alkarzubiak eragiten" erakusketea.

DIMA

Dantzari Txiki Eguna. 11:00etan umeak batu. 12:00etan, kalez kale jantzan. 13:15ean, alardea herriko plazan. 14:30ean, bazkaria frontoi handian. 16:00etan, jaialdia.

IGORRE

17:00etan umeentzako zinea, *Una aventura extraordinaria*. 19:30etan, zinea *Los descendientes* Lasarte Aretoan.

UBIDE

08:00etan, Ubideko Bira.

ZEANURI

10:00etan, Garmitxa alkartearen elikagai-intolerantzia daukien umei lagunduteko ekitaldia.

ZEBERIO

Austarri Mendi Taldearen urteera Lizarrusti-Txindoki-Larraitz.

APRILAK 23 IGORRE

20:00etan, Juan Manuel Sanchez Gordillo Marinaledako alkartearen berbalak. Kultur Etxean.

LEMOA

Lemoako I. Narrazino Lehiaketan narrazi-noak aurkezteko azkenengo eguna.

18:00etan, Ana Meabe "Bazan kalabazan" Ipuin kontalaria liburutegian.

JB Eguskita Meabe ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleak *book crossing*-a.

APRILAK 26 BEDIA

17:00etan, "Liburuai eustekoa" tailerra liburutegian.

APRILAK 27 IGORRE

Igorreko jaietarako kartel lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna.

19:00etan, hileko azken barikua, presoan aldeko konzentrazioa.

APRILAK 28 IGORRE

19:00etan, Arratiako Musika Eskolarean 25. urteurreneko ekitaldia eta kontzertua. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urteera maiatzaren 1a arte. Becerril (1.865 m), Teleno (2.183 m.), Cabeza de la Yegua (2.135 m.), Vizcodello (2.122 m).

APRILAK 29 DIMA

Artisautza eta Abeltzantza Azokea.

IGORRE

17:00etan umeentzako zinea, *Viaje al centro de la tierra 2*. 19:30etan, zinea *Los idus de marzo* Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:00etan, *Argia* dokumentala Elizondo Kultur Gunean.



"Otsoz otso" ipuina Lur Kortaren eskutik Bediako liburutegian hilaren 23an

Aurorita ipuin barriakaz jatorru, betiko legez bere maleta gorriagaz presaka, alai eta barritsu. Maletan otso bat sartu jakola eta bildurtuta dator, Auroritari txakurrak asko gustetan jakoz-eta, baina otsoak ez. Halanda be, otso hau zintzoa dala konturatuten da, otso guztiak ez dira-eta gaiztoak! 2 eta 6 urte bitartekoentzat da ipuin kontakizuna.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazioagaitik. Zatoz ikustera Elexalde 10 behera (Igorre).

DANERIK

AURRESKUA IKASI GURA DOT

Aurreskuren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

ESKOLAK EMOTEN DODAZ

DBHko, Batxilergoko (ikasgai guztiak) eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoko eskolak emoten dira. Deitu 659 729 398 telefonora.

LOKALA ALOKATZEN DOT

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

GARBIKETAK

Etxeak, lokalak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta

adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

ETXEKO BEHARRAK ETA ZAINTZAK

Etxeko beharrak egin, eta umeak eta edadeko jentea jagoten dot. Kobxeduna. Mari Karmen 647 067 235.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Goizeko ordutegian umeak jagoteko prest nago. Telefonoa 600 759 434 (Naiara).

LOKALA GURA DOGU

Igorren alokairuan dagoan lokala gura dogun gazte taldea gara. Ahal dala erdigunean. Deitu 662 964 716 telefonora.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Zeanuriko Ellauri Hotelak emondako asteburuko egotaldia.

Aizpea Etxebarria (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Los idus de marzo filmarako.

Albaro Legarreta (Igorre)
Maria Jesus Iturriaga (Artea)

Igorreko Kultur Etxea
Lasarte Aretoa



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

LEIRE AGINAGA

"Zeu zara' esan eusten lagunak azkeneko zenbakiaren portadan agertzen nintzala ikustean"

Oraingo honetan lagun bereziagaz alkartu da BEGITU.

Kolunpiotik bajatu eta 10 urteren ostean Leire Aginagagaz egoteko beharra sentidu dau hamabostekariak. Izan be, lotura estua dago bien artean. 12 urteko arteaztarra BEGITUREN lehenengo portadan agertu zan. "BEGITUREN umea" izenez be ezaguna dogu. Esan leiteke hamar urte honeetan bai BEGITUK eta bai Leirek ibilbide paralelo bat eroan dabela.

Irati Urien

Gogoan daukazu kolunpio gainera igon eta argazkia atera eutsueneko egun ha?

Ez. Txikia nintzan. Urte haretan urte bat edo bi baino ez neukazan, ez naz akordetan.

Momentu haretatik hona hamar urte pasau dira. Zelan pasau jatzuz?

Orain 12 urte daukadaz eta egia esan urteak arin pasau jataz eta gustau egin jataz, politik izan dira.

Argazkiko urte horretan, kolunpio gainean egon zan Leire, zelangoa izan da Leireren bajatukerea kolunpio horretatik?

Gauzak asko aldatu dira. Momentu haretan oinez be justu nekien, eta gaur egun ondino umea banaz be, neska handia egiten nabil, datorren urtean Institutura noa. Urteak au-

rrera joan ahala eskolan be aurrera joan naz eta, aldaketa asko egon dira. Herrian eskolaz aldatu dogu, irakasleak be beste batzuk dira... Seigarren mailan nago jadanik eta datorren urtean Institutura noa, badaukat gogoia.

Irakurten dozu BEGITU?

Bai.

Badakizu interneten be bere lekutxoak daukala?

Bai, sartuten naz batzuetan, gustetan jata.

Zein atal gustetan jatzu gehien eta zergaitik?

Dunba. Eskoletako umeak idazteko daukien atala da. Arteko ikastolatik be idazten dogu batzuetan eta asko gustetan jaku, akaso, gaztetxoakandik hurbilen dagoan saila dalako. Azkenengo aldian, egindako urteera baten inguruan idatzi dogu. Ezagunen bat agertuten bada ikustea

Leire Aginagak BEGITU irakurten dau eta Dunba da gehien gustetan jakon saila



be gustetan jata.

BEGITUREN 7. urteurrena ospatuteko egin zan ekitaldian irakurri egin zenduan. Zelako esperientzia izan zan?

Ona, ez dot sekula be aitzuko. Akordetan naz sano artega egon nintzala. Igozko Kultur Etxean izan zan eta jente asko egoan. BEGITUKO lehenengo portadearen irudia izan nintzala irakuri neban. Momentu haretan ez nintzan lar konsziente, baina apurka-apurka dana aituten nabil.

Aurten 10. urteurrena da. Leire barriro be oholtza ganean ikusiko dogu?

Bai. Pentsetan dot oraingoan lasaigo egongo nazala baina halanda be... Aurten 10. urteurrena da eta hori kontu potoloagoa da.

Igarri dozu BEGITUREN hamar urteetako eboluzinoa?

Egia esan ez. Azken baten, txikiegia izan naz eboluzinoagaz konturatuteko. Gogoratuten dodana da, lehen aldizkari formatoa eukala eta orain periodiku batena.

Zer esan deusue lagunak aurteko BEGITUN zu agertuten zara-la ikustean?

Harritu egin ziran baina pozik egon ziran. "Zeu zara!" esan eusten.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

10 urte, hamar herri hamaika ekintza.

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

35€

55€

75€



Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza 24. 48142 Artea